





B5



### Izenaren jatorria

#### Izenaren etimologia (patronimikoa):

**Domingo Bernaola y Urizar** Bermeon jaio zan 1625eko zezeilaren 3an. Gurasoak Martin Bernaola e Iturrioz, dimoztarra, eta Ana Urizar y Enderica, gernikarra, ziran. Itsas Armadako marinela, lanbide horretan 44 urte egin ebazan eta Almirante kargua lortu eban. Hainbat ekintza militarretan hartu eban parte: Napolesen, Sizilian, Salernon... Don Juan de Austriaren laguntzaile izan zan. 1685eko maiatzaren 2an hil zan.

#### Muga geografikoak

Kalea Gernika-Lumoko ekialdetik mendebaldera doa. Hain zuzen be, Don Tello kaletik, Domingo Alegria plaza eta "8 de enero de 1882" kaleraino. Iparraldetik bat egiten dau Fernando Abaunza kaleagaz eta Pedro Aboitiz Isasi kaleagaz. Hegoaldean Merkatu plaza dago.

### Ezaugarri historikoak

Kale hau, Gernikako Errebaleko gehien moduan, XIX-XX. mendeen artean eratu zan. Don Tellogaz bat egiten dauen gunean plaza txikitxu bat egoan. 1917an Wilson Plaza izena ipini eutsien toki horri AEBetako presidente izan zanaren gomutagarri, herrialde horrek Munduko Lehenengo Gerran parte hartzeagaitik.

#### Edifizio aitagarriak

**"Casa Circo"**: etxe honi buruzko datuak San Roke kaleko azalpenetan agertzen badira be, beste zehaztasun batzuk emongo doguz oraingoan. Arkitektura aldetik edifizio sendoa, lauki-zuzen formaduna, 4 solairukoa eta lau fatxadakoa da. Barrualdean areto handi bat eukan agertoki eta guzti. Danetariko ikuskizunak izaten ziran bertan: teatroa, musikea, zirkoa, eta abar. Areto honetan proiektatu zan lehenengoz filme bat Gernikan. 1902an sortutako Santa Cecilia Kultur Alkartearen egoitza izan zan. XIX. mendearen amaieran, edifizio hau Juan Jose Larruzearena zan eta gero Bedoya notarioaren izenean erregistratu zan.



B4



### Ezaugarri historikoak

Kalearen jatorria trenaren etorrerari lotuta dago, orduan urbanizatu zan-eta padurea zan inguru hau. Juan Aboitiz eta Pedro Pascual Gandariasek txalet barri bat egin eben bertako orubeetan. Kaleak uriaren sortzailearen izena izan aurretik, beste izen bi izan ebazan: "Ensanche" eta "Nueva Travesia". 1970eko hamarkadan, Arana kondearen "Nere Kabia" orubea zeharkatuta, luzatu egin zan kalea Tilosetako Pasealekuraino (gaur egun Carlos Gangoiti dana).

#### Edifizio aitagarriak

**Juan Aboitiz eta Arisperen txaletak**: Errebal edo "Ensanche" eritxan inguruko lehenengo etxeak izan ziran. Estilo erromantikoa jarraituta egin ziran biak. Bonbardaketagaz, galdu egin ziran.

**"Sociedad Guerniquesa"**: estilo eklektikoko etxe eder hau Gernikako liberal-kontserbadoreen kultur egoitza izan zan. 1932an, udalak erosi egin eban bertan Karmelo Etxegarai izeneko Bigarren Hezkuntzako Institutua jarteko. 1936-37 bitartean, gerra denporan, Errepublikaren Defentsarako batzordearen eta Gernika-Lumoko Defentsarako Udal Juntaren egoitza izan zan. Komunisten Langile eta Nekazari Milizia Antifasistak be bertan eukien kuartela. Gudari talde horrek "Gernikako Arbola" bataloia eukan izena. Bonbardaketagaz edifizioa hondatuta geratu zan.

**Nemesio Barbieren txaleta**: estilo erromantikokoa, kalearen mendebaldean egoan. Hori be bonbardaketan hondatuta, galdu egin zan.



B5

### Izenaren jatorria

#### Izenaren etimologia (patronimikoa):

Trastamarako Tello, Castañadako Kondea, Aguilarreko Jauna, Enrique IV.a erregearen Alferrez Nagusia, eta Bizkaiko Jauna (azken titulu hau Juana Nuñez de Lararen ezkontide izateari esker), Gaztelako Alfonso X.aren seigarren sasiko semea izan zan. 1337an jaio eta 1370ean hil zan. 1366ko apirilaren 28an, Orduñako urian egoala, Gernikako uribildua sortu eban, artean berea eban ibaiportua Lumoko eleizateari kenduta.

#### Muga geografikoak

Hegoaldetik Geltoki plazan eta Iparragirre kalean amaitzen da eta iparraldetik Carlos Gangoiti kalean. San Roke eta Domingo Bernaola kaleak Don Tello kaleraino heltzen dira. Portu kaleak eta San Juan kaleak, ostera, perpendikular kurutzatzen dabe


**“Casa del Pueblo”:** gerra aurretik, kalearen hasieran Tiburcio Elguezabalen “Moderno” kafetegia egoan. Bertan, alboko gela baten egoan Gernikako sozialisten egoitza, 1937ko bonbardaketan desagertu zana.

**Ona Orfebreria:** Enrique Amurrio, Crescencio Lopez eta Jesus M. Obietak 1931n eregitako orfebreria, mahai-tresneria eta etxe-tresneria lantegia. COASA (Cubiertos

y Orfebrería Amurrio) enpresearen aurrelaria izan zan. Gaur egun, MALTA SA da.

**Soledadena Etxea:** Soledad Aranarentzat egina, Eusko Jaurjaritzari saldu jakon Ertzaintzaren komisaldegia ipinteko bertan.

**Torrezuri:** Teodoro Aranarentzat egin zan bere sasoiari; gaur egun, barriz, Geriatria Zentroa da.



B3



## Izenaren jatorria

### Izenaren etimologia (patronimikoa):

**Enrique Amurrio Muga**, Arboledan jaioa, buruzagi karlista garrantzitsua izan zan 1931ra arte. Gernika-Lumoko alkate izan zan birritan (Errepublikareagaz eta “FET-JONS Movimiento Nacional” agaz geroxeago). “Artes y Oficios” eskolea sortu eban eta Andra Maria eleizako altara tailatua egiteko ekimena bultzatu eban.

II. Errepublikaren sasoiari “Comunión Tradicionalista” alderdiaren buruzagi eta Autonomi Estatutoaren aldeko Udalen batzordearen kidea izan zan. 1919 eta 1920 urteen artean, berak sortutako Bizkaiko Sindikatu Katoliko Librean zuzendu eban.

### Muga geografikoak

Ekialdean Karmelo Etxegarai kaleak egiten deutso mugea.